

JON MAIA, GIPUZKOAR ERAKO AURRESKUAN EUSKADIKO TXAPELDUNA

Jon Etxabe

Gaztea, 19 urte, mutil bikaina, 1'82, eta dantzari paregabea, Gipuzkoarera aurrekuan Euskadiko Txapelduna. OARSOK bere orrialdetara ekarri nahi izan du, txikitandik dantzarako dohaiak zituela erakutsi zuen gazte hau.

Mikel Sarriegi, Edu Muruamendiaraz eta Ramon Santxez besteak beste belaunaldi bateko dantzariak izan dira, lehenengo biak batipat. Jon Maiak, iaz Gipuzkoako txapeketa irabazi eta aurten Euskadikoa lortzearekin, behar bada belaunaldi berri bati eman dio hasiera. Ez dakigu, noraino iritsiko den, baina adituek diotenez, duen adinagatik, eta dantzatzerakoan erakusten duen dotoretasun, fintasun eta teknika kontutan izanik, berak hasi duen belaunaldi berria markatu dezakeen dantzarria izan daiteke. Hori geroak esango du. Udaberriko azken egunek txapeldun irripartsu bat ekarri digute;

G.- Sarriegi, Muruamendiaraz eta Santxezek garai bat markatu dute euskal dantza munduan. Horiakin lehia ez aritzeak erreztu egin dizu bidea ?

E. Egia da, Sarriegi eta Edu Muruamendiarazek garai bat markatu dutela. Baina aurtengoak jenerazio aldaketa bat markatu dezake. Irunen ospatu zen txapelketan adibidez, Muruamendiaraz nire atzetik geratu zen. Orain arte lehenengo helduak geratzen ziren eta gero gazteak sailkatzen ginen. Ni helduen aurretik Irunen geratu izanarekin jenerazio aldaketa hori sumatzen hasi zen.

G.- Zenbat urterekin hasi zinen dantzan. Ba al zen zure familiarian aintzindaririk ?

E.- Sei urterekin hasi nintzen, ia zazpi egiteko nituela, Ereintzan. Beti atentzioa ematen zidan dantzak, kalean dextentetan ikusten nuen eta beti erakartzen ninduen. Familiaran, nere etxean, ez da inor dantzaria izan, lehengusuren bat dut Ereintzan ibilitakoa, baina etxean ez dut aintzindaririk. Hasi orduko gustoa hartu nion.

G.- Hasieratik erakutsi al zenuen dantzarako gaitasun aparta zenuela ?



E.- Garai hartan orain baino gutxiago igertzen zen. Orduan gure irakasleak hobby bezala zuten guri irakastea, eta gu ere, ez dut esango denbora pasa, baina halamoduz joaten ginen.

Orain gauzak hobeto daude. Akademia egituratu bat dago. Gu hasi ginenean, sei urterekin, kaleko jantziekin joaten ginen, zapatilla batzuk jarri, izerdi pixkabat bota, eta etxera. Orain aldiz, Ereintzara estreinekoz joaten diren haurrak, mallakin, txapinakin joaten dira, barra egiten dute... ez dauka zer ikusirik gu hasi ginen garaiarekin. Guri aldaketak 13 urterekin harrapatu gintuen.

G.- Eta txapelketetan noiz hasi zinen?

E.- Lehenengo aldiz hamaika urterekin parte hartu nuen. Haurren mailan, bi kategoria daude, 7-11 urte artekoak eta 12- 15 urte artekoak. Nik lehen maila horretan txapela atera nuen. Hurrengo urtean 12-15 urte artekoa irabazi nuen. Garai hartan ez zegoen txapelketarik. Uste det 89an Erreterian egin zela Gipuzkoako Aurreku Txapelketa lehen aldiz. Gero beste herri batzuk hasi ziren.

G.- Helduen mailara iritsi aurretik, zeuden txapelketa ia guztiak irabazi ondoren, salto handia izan al zen helduekin lehiari ari beharra?

E.- Bai, noski, hori da saltorik handiena. Aurreko urtean zure mailan, haur eta gazteen mailan alegia, zaharrena izatetik, helduen mailan gazteena izatera pasatzen zara. Nolabait zuretzat eredu eta irakasle izan direnekin dantzan lehiatu beharrak gauza zaildu egiten du.

G.- Zu dantza klasikoan ari zara. Zer mesede egin dizu eta zer "kalte"?

E.- Klasikoa egiten Ereintzan hasi nintzen, gero urte bete egin nuen Baionako kontserbatorioan eta beste urte bete Donostiako akademia batean. Dantza klasikoa lantzearekin beti irabazi egiten duzu. Teknikan, gorputzaren kontrolean, arintasunean irabazten duzu. Hitz batean esateko, oinarri sendoa ematen dizu.

Txarra?... Ezer. Dena dela nik argi neukan klasikoa ez zela neure bidea eta hasieratik euskal dantzan hobetzeko bide bezala hartu nuen, eta ez horretara dedikatzeke asmoarekin.

G.- Dantzak zer du erakargarria?

E.- Talde barruan sortzen den giroa oso gustokoa dut. Iristen da momentu bat, astean bi edo hiru aldiz ensaiatzera joan beharrean aurkitzen zerana. Nolabait taldea, zure lagunartea bilakatzen da. Horri dituzun irteerak eta handia zeranean egiten diren bidaiak eransten badizkiozu, gehi herriz- herri egiten diren aktuazioak, ba gustagarria da. Dinamika batean sartzen zara eta oso zaila zaizu gero uztea.

G.- Nerbioak zer moduz kontrolatzen dituzu, txapelketan dantzatzera atera aurretik?

E.- Normalean nahiko ondo. Okasio berezietan denei bezala nerbioak lagun izaten dituzu, baina nahikoa ondo kontrolatzen ditut.



G.- Txapelketa nola prestatzen duzu Jon?

E.- Taldearekin astean hirutan ensaiatzen dugu. Txapelketa garaia etortzen denean, dinamika hori jarraitzeaz aparte, bakarkako saioak egiten dira. Azken finean lau dantza egiten dira txapelketan eta oso landuak eduki behar dituzu, oso perfektionatuak. Bakarrik egiten dena, beste dantzatzeko era bat da, eszenarioan zu zude, inor ondoan ez duzula. Ritmo hori hartu egin behar da.

G.- Nork lagundu dio Jon Maiari txapelketa prestatzen?

E.- Normalean lana bakarrik egiten dut. Taldeko lagunek ere laguntzen didate. Noizean behin, esaten diezu, begiratu ia zer moduz ari naizen. Akatsen bat ikusten badute esan egiten dute eta hori beti da lagungarri. Baina batez ere bakarkako lana da. Zu ispilu aurrean zaude, badakizu zer eman dezakezun eta noraino iritxi zaitezken eta horreraino iristeko zer egin behar duzun.

G.- Zure ezaugarri nagusia dantzari bezala zein da, teknika on baten jabe izatea edo indar handiko dantzaria izatea?

E.-Bi gauzak bereiztea zaila bada ere, nik uste teknikoa naizela. Orain behar bada ez hainbeste, baina normalean nere ezaugarriarik azpimarragarriena teknika izan da. Orain indar gehiago dut noski lehen baino.

G.- Bukatzeko, Jon, dantza egiterakoan zer duzu gustokoago bakarrik aritzea edo taldean?

E.- Oso ezberdina da. Giro aldetik taldea nahiago dut, beti zaude integratuagoa. Baina bakarka eszenario batera dantzatzera ateratzea, jende askoren aurrean satisfazio handia da. Halere nik uste konpletuagoa da taldean ibiltzea, beste alaitasun bat, beste zerbait ematen du.

Baina Jon Maiak izan duen satisfaziorik handiena Euskadiko Txapelketa irabaztea izan da. Estreinekoz aurten irabazi du, zenbat aldiz irabaziko duen denborak esango du. Aurtengo txapela ordea datorren txapelketa arte ez dio inor kenduko. Zorionak !